

EKONOMIA EREDUA: Sarrera iturriak

Gure enpresaren sarrera iturriei dagokionez, esan dezakegu, lortuko ditugun sarrera iturri bakarrak bezeroetatik lortuko ditugula, hau da, egiten ditugun salmenten arabera lortuko dugu dirua. Gure produktua, 3€-ko prezioa izango du. Gre produktuaren erosleak festa eta bestelakoen antolatzaileak direnez, gure diru sarrera irregularra izango da, horrelako ekitaldi eta festak ez direlako egunero egiten. Nahiz eta gure diru sarrerak jarraiak ez izan, salmenta bat egiten denean, edallontzi asko salduko dira, izan ere, pertsona asko egoten dira festa, diskoteka eta festibaletan, beraz, salmenta handiak izango dira, eta eskuratuko dugun diru kantitate horrek, enpresarekin aurrera jarraitzeko aukera emango digu.